

## **2021eko URRIAREN 13an GARAPENERAKO LANKIDETZAREN KONTSEILU ERREKTOREAK egindako BILKURAREN AKTA**

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteiz) eta 2021eko urriaren 13ko 13:00ak direnean, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da, honako pertsona hauen parte-hartzearekin:

- **Presidentea:** Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (hemendik aurrera, eLankidetz) eta haren Kontseilu Errektoreko presidentea. Presentzialki bertaratu da.
- **Bokala:** Imanol Zuluaga Zamalloa jauna, Kabineteko zuzendaria, Osasun Sailaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- **Bokala:** Iker Atxa Zaitegi jauna, Gizarte Berrikuntzako zuzendaria, Kanpo Harremanen (Lehendakaritza) ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- **Bokala:** Sofía Marroquín andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- **Ordezkoa:** Iñigo Eguren jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- **Bokala:** Fernando Iturriaga jauna, Programa eta Azterlanen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da. Telematikoki bertaratu da.
- **Bokala:** Leixuri Arrizabalaga Arruza andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko presidentea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- **Bokala:** Oihana Etxebarrieta Legrand andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari gisa. Presentzialki bertaratu da.
- **Bokala:** Patricia Bárcena García andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Presentzialki bertaratu da.
  
- **Idazkaria:** Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria.

Ezin agertu izana adierazi dute:

- **Bokala:** Jone Miren Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako zuzendaria, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren ordezkari gisa.

Jose Antonio Rodriguez Ranz jauna ere gurekin egon da, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea, eta gonbidatuta bertaratu dira, halaber, gai-zerrendan jasotako gaien aurkezpenean laguntza teknikoa eskaintzeko xedez, Alazne Camiña andrea, Koordinazio Teknikoko arduraduna, eta Izaskun Astondoa andrea, ekonomia-eta aurrekontu-kudeaketako teknikaria.

## Sarrera

eLankidetzako eta haren Kontseilu Errektoreko presidentek hartu du hitza bertaratutakoei ongietorria egiteko, eta bilkurari hasiera eman dio, gai-zerrenda honekin:

- 1. 2021eko uztailaren 21ean egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.*
- 2. 2022rako aurrekontu-aurreproiektuaren proposamena onartzea, hala badagokio.*
- 3. Ekintza humanitarioko proiektuei laguntzak emateari buruzko informazioa*
- 4. Galde-eskeak*

Presidenteak eman dio hasiera bilkurari, eta adierazi du gaur aztertu beharreko gai-zerrendari buruzko dokumentazio guztia aldeztu aurretik helarazi dela.

### **1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea.**

Kide baten eskutik 2. puntuaren gainean jasotako oharra kontuan harturik, 2021eko uztailaren 21eko bilkuraren akta onartzen da, bertaratu guztien aldeko botoekin.

### **2. 2022rako aurrekontu-aurreproiektuko proposamena onartzea**

Paul Ortegak aurrekontuko zifrak komentatu ditu, eta 2022. urterako Eusko Jaurlaritzaren ekarpena 1.000.000€ igo dela eman du aditzera. Jakitera eman du, halaber, 1. eta 2. Kapituluetan behetik egindako doikuntzak dirulaguntzen gaineko 4. Kapitulara aldatu direla.

Aurrekontu-aurreproiektuko proposamena bozkatu eta onartu egin da, Oihana Etxebarrietaren, Iñigo Egurenen eta Sofía Marroquínen abstentzioekin, aurrekontu-zuzkidura Aurrekontu Orokorren % 0,7ra iristetik urrun dagoela uste baitute.

### **3. Ekintza humanitarioko proiektuei laguntzak emateari buruzko informazioa**

Presidenteak ekintza humanitarioko proiektuetarako hirugarren laguntza blokearen berri eman du. 2021erako ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntza-deialdiaren inguruan eLankidetzako zuzendariak martxoaren 9an emandako Ebazpenaren esparruan eman dira laguntza horiek.

Alazne Camiña andreak jakinarazi du 39 eskaera jaso direla orain arte, eta 37 proiektu barematu direla guztira. Hirugarren laguntza blokea emateko berrikusitako 10 proiektu horietatik, 3 eskaerak 50 puntu baino gutxiago lortu dituzte, eta, hori horrela, baztertuta geratu dira, eta 7 proiektuk 50 puntu baino gehiago lortu dituzte, eta, horrenbestez, egungo proposamenarekin 787.808,00 euroko laguntzak ematen dira, 54.030,76 euroko gerakina izango delarik deialdirako. Ildo horretan, Alazne Camiña andreak diruz lagundu beharreko ekimenen ezaugarri nagusiak errepasatu ditu, Kontseiluko kide bakoitzarentzat eskuragarri dauden karpetetan bildutako dokumentazioan oinarrituta.

Presidenteak erantsi duenez, azaroaren 16ko Kontseilu Errektorean, azken eskaera emateko ebazpenaren gaineko informazioa azaltzeko asmoa dute, eta ebazpen hori onar liteke, baldin eta Ekintza humanitarioko estrategien lerrotik soberakinik geratzen bada, eta soberakin hori oraindik esleitzeke dagoen 54.030,76 euroko zenbatekoari gaineratzeko aukera badago.

#### 4. Galde-eskeak

Besterik gabe jakinarazi da hurrengo bilkura urriaren 26an egingo dela, 2021eko garapenerako lankidetzaren proiektuetarako laguntza-deialdiaren berri emateko.

Ez denez beste gairik proposatu, saioa amaitutzat eman da 13:30ean. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehen paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

OE<sup>o</sup> Beatriz Artolazabal Albeniz andrea,  
Agentziako eta haren Kontseilu  
Errektoreko presidentea.

Paul Ortega Etcheverry  
Kontseilu Errektoreko idazkaria  
GLEAko zuzendaria